

## 1. Balorezko proposamena

Gure gizartean autoaren erabilpena oso ohikoa da, baina aparkalekua erraz aurkitzea askotan oso zaila izaten da. Honek urduritasuna eta haserrea piztu dezake gidarietan eta horrek istripuak eragin ditzake. Gure kooperatibak gidatzean segurtasuna zaintzen du, horrekin batera gidarien animoari mesede egiten dio, era berean hain preziatua den denbora aurrezten laguntzen duelarik.

Gure proiektuak *Park Phone* du izena eta aparkaleku libreak aurkitzeko aplikazio batean oinarritzen da, hau da, aparkalekurik aurkitzen ez baduzu, gure aplikazioan sartuko zinateke eta hor aurkituko zenuke (autoa, motorra, furgoneta, karabana) aparkatzeko dauden toki libreak.

Gure proiektuaren onurak dira, erabiltzen ari diren pertsonak aparkaleku toki erraz aurkitzea eta urduri ez jartzea lekurik aurkitzen ez dutenean, horrekin batera buelta eta bueltaka ez egotea, bezeroari eta Amalurrari aldi berean mesede bat egingo dietelarik.

Guretzat garrantzitsua da bezeroak ondo tratatzea eta eroso sentiaraztea, horrela berriro erabiliko dutelako gure aplikazioa.

Gure balioa kualitatiboa da. Zerbitzu hobereana emateaz gain, diseinuan zentratuko gara, diru sarreraren parte bat iragarkietatik aterako dugulako. Lehiakideengandik bereizten gaituena berritasuna, prestazioak, pertsonalizazioa, lana erraztea, diseinua eta erabilera sinplea dira.

Guk bezeroarentzako edo bezero-segmentuarentzako balio-proposamena definitzerakoan gure proiektuaren kalitatea, diseinua eta segurtasuna nabarmentzen ditugu.

Gure proiektua aurrera eramango genuke hainbat material erabilita, eguzki plakak erabiliko genituzke energia sortzeko, modu sostengarri batean eta hauei konektatuta kable batzuk egongo lirake. Klean egongo direnez kable hauek estaldura berezia eduki beharko lukete fenomeno meteorologikoengandik babesteko eta kotxeak beraien gainetik igarotzean ez apurtzeko. Kable hauek energia eramango lukete sentzore plaka batera eta honek kotxeak aparkatuta daudela antzemango luke, informazioa datu base batekin konektatuta egongo litzateke eta gure bezeroei bidaliko litzaieke.